



**Ez dut jokatu nahi, zeren
jokoa ez da errenta;
menturaz, gal nezake.**

**“Nola geroko menturaren menturan
menturaturik galtzen garen.”**

Axular, Gero
[Egokiturik]



“Jokoa ez da errenta”

Jolasa ere ez da errenta. Baina, errentak errenta: ***jokoa*** ez da ***jolas***; ***jolasa*** ez da ***joko***.

Bertsoa, orduan, zer da:
joko ala ***jolas***?



JOKOA

Zenbait euskal jolas

- ahari-jokoa
- aizkora-jokoa
- bola-jokoa

Zenbait adibide

- Errefera esaten diote, Iparraldean, **pilota-jokoan** sakea edo botea itzultzeari.
- **Xake-jokoko** jokaldi bat da ganbitoa.
- **Karta-joko** bat da pokerra



JOKOA

Joko batean irabazi edo galdu egiten da,
arriskatu egiten da: zerbait dago jokoan.

- Etxe asko galdu ditu **jokoak**.
- Dirutza dator kio administrazioari **jokoaren** industriatik.
- **Joko** eta Ikuskizun Zuzendaritza
- Las Vegasko **joko-etxeak** eta **joko-makinak**



JOLASA

Euskal jolas batzuk

- *Zapata zarka*. Bost-sei bat lagun behar dira **jolas** hau egiteko...
- *Zezen ala urdaika*. Beste izen batzuk ere baditu **jolas** honek: burdingola, txirrin-txarran...

R.M. Azkue, *Euskalerraren Yakintza IV*
[Egokiturik]



JOLASA

Ongi pasatzea, dibertitzea du helburu jolasak, ez lehia eta norgehiagoka.

- Suarekin **jolasa**, arrisku demasa.
- Goseak **jolasik** ez du.

Gotzon Garate, Atsotitzak



- Erne, beraz: ez dira nahastekoak **jokoa** eta **jolasa**.
- Zer da, orduan, bertsoa: **joko** ala **jolas**?
- Nola hartzen den: **jolas** hutsa izan daiteke, edo **joko** bihurtu (erronka, dema, txapelketa). Izan ere, jarduera bera ikuspuntu batetik edo bestetik har daiteke.



Gaztelaniaz zein frantsesez, hitz bakarra dago **jokoa** zein **jolasa** adierazteko:

es. **juego**

fr. **jeu**

Ingelesez, euskaraz bezala, bi:

en. **game**

en. *the game of handball*, eu. *pilota-jokoa*

en. **play**

en. *children's plays*, eu. *haur-jolasak*



jokatu du / jolastu da

Joko batean diharduena **jokatzen** ari da.
Jolasten hasten bada, ez serio, galtzeko arriskua du.

- Futbolean **jokatu du**.
- Baloiarekin **jolastu da**.
- Ondo **jokatu du**.
- Futbolean **jokatu dugu**: penagarri **jokatu dugu**, baina ederki **jolastu gara**.



Oso oker zabaldua da: ***jolastu du**

jolastu da

edo

jolasean aritu/ibili da

jolas egin du

Bi aldiz gaizki dago: **Ondo *jolastu *du futbolean.**

- Ondo **jokatu du** musean/futbolean/...
- Ondo **aritu da** musean/futbolean/...



JOKATU du

Pilota-partida ikusgarria **jokatu dute** gaur.

* **...jolastu dute** gaur

JOLASTU da

Ezkutaketan **jolasten nintzen** txikitan.

* **Ezkutatetan jokatzen** nuen...

*Ezkutaketan jolasten **nuen**...



JOLAS › JOLASEAN IBILI › JOLASTU / JOLAS EGIN

Orain arte, **jolas** erabili dugu, baina hitz horrek baditu aldaera batzuk, euskalkien arabera. Hona aipagarrienak:

- **Olgeta › olgetan ibili › olgatu**
- **Josketa › jostetan aritu › jostatu**



OLGETA > OLGETAN IBILI > OLGATU

Euskaltzaindiaren Hiztegia

olgatu, olga, olgutzen. *da/du ad. Bizk. Jostatu, jolastu, atsegin hartu*

- Zereginik ez daukagunez gero, nahikoa **olgatu gara**.

olgeta iz. Olgatzea.

- Jokoa, dantzak eta gainerako **olgetak**.

olgetan 1 adb. Olgatzen, jolasean.

- Denbora gehiegi **olgetan** igarotzea.



JOSTETAN › JOSTETAN ARITU › JOSTATU



Euskaltzaindiaren Hiztegia

jostatu, josta, jostatzen. *da* ad. Atsegin hartuz denbora igaro.

- Zer, **jostatu** zarete Iruñean?

jostetan adb. Jostatzen.

- Nahiago dute **ibili jostetan**.
- **Jostetan ari** zen sokarekin.



Fitxa honetan, nahiz
esanahiak **jokoan**
egon, **jolasean** aritu
gara.